

SGIKERREKO GOI MAILAKO TEKNIKARIEN ESKALA (MAKROPORTAERA - MESOEGITURA - NANOTEKNOLOGIA) LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

- **OPOSIZIO FASEKO BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK**
- **MEREZIMENDUEK AURKEZTEKO EPEA**

2022ko otsailaren 14an egindako bileran SGIKerreko Goi Mailako Teknikarien Eskala (Makroportaera - Mesoegitura - Nanoteknologia) lan poltza handitzeko hautaketa prozesuko epaimahaiak, aipatutako hautaketa prozesuko ariketa bakarreko probak ebaluatu ditu, eta deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2021eko maiatzaren 21eko erabakia), epaimahai honek honako erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa.- SGIKerreko Goi Mailako Teknikarien Eskala (Makroportaera - Mesoegitura - Nanoteknologia) lan poltza handitzeko hautaketa prozesuaren oposizio fasearen behin-behineko emaitzak ezartzea. Lehiakideek emaitzak lan-eskaintzen atarian kontsultatu ditzakete.

Bigarrena.- 5 lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Erreklamazioak epaimahai kalifikatzaileari igorriko zaizkio, jakinarazpenotarako helbidea honako hau izanik, EHUko Bizkaiko campusean, Pertsonalaren gerenteordetza, AZPren zerbitzua, Hautaketa eta Hornikuntza. Biblioteka eraikinean. 2. solairua (Sarriena auzoa, z/g, 48940 Leioa).

Horren arabera erreklamazioa egin behar dutenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dute erreklamazioarekin batera, hurrengo puntuan zehaztu bezala.

Hirugarrena.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzen erreklamazioen aurkezpena eta gainditu dutenek, merezimenduak egiaztatzeke dokumentuen aurkezpena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaera eta dokumentuak ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dira, ahal den guztietan UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, Jasotzailea atalean Gerentzia aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa; b) erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren edo sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez; c) posta bulegoetan; eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurrez aurre aurkezten diren

eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Oposizio-fasea behin-behinean gainditu dutenek eta oposizio-fasearen behin-behineko emaitzari erreklamazioa aurkeztu dutenek merezimenduak alegatzeko inprimakia aurkeztu beharko dute egiaztatzeko dokumentazioarekin batera.

Dokumentazio hori aurkezteko epea, 5 lanegunekoa izango da, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta.

Leioan, 2022ko otsailaren 17an

Epaimahaiko idazkaria

José Manuel Nicolau Expósito